

# gaz-teak




**Getxo**  
*bizi ezazu*

Doako alea

374 zb.  
www.getxo.eus

>> 2023ko Urtarrila

ELEKTRIZITATEA  
ELECTRICIDAD



ELIKAGAIEN  
MANIPULATZAILE  
MANIPULADOR  
DE ALIMENTOS



OTSAILA > EKAINA 2023

IKASTAROAK ETA JARDUERAK

## GAZTEENTZAKO PARA JÓVENES

CURSOS Y ACTIVIDADES

FEBRERO > JUNIO 2023



PERKUSIO



### Nabarmen<sup>tzekoak</sup>

> Gazteria Zerbitzuak lau tailer berri antolatu ditu 2023ko lehen seihilekoan

> Gazteek bultzatutako proiektuetarako "Wanted" programaren deialdi berria

> "Taupada", gazteentzako antzerki-tailerra Romoko Gaztelekuan



## “Taupada”, gazteentzako antzerki-tailerra Romoko Gaztelekuan

Romoko GureGune Gaztelekuak 11 eta 17 urte bitarteko gazteentzako antzerki tailerra hartuko du, asteazkenetan, urtarrilaren 18tik apirilaren 26ra, eta Udaleko Gazteria Zerbitzuak bultzatzen du, Fidiar Fundazioarekin lankidetzan, Arteen bidez pertsonen arteko integrazioa eta garapena sustatzeko. Tailerraren izena “Taupada” da, nerabeei “beren emozioak taupatzeko” egingo duten lana azpimarratzeko. Ordutegia 17:30etik 19:00etara izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi hona: [aisi-bi-zia.cpuga@getxo.eus](mailto:aisi-bi-zia.cpuga@getxo.eus) edo deitu 635 70 65 26 telefono zenbakira.



### Material berria

Bestalde, Gazteria Zerbitzuak mahai-joko eta liburu sorta berria erosi du herriko bi gaztelekuetarako, Romoko GureGunerako eta Algortako Gauegunerako.

Gonzalo Ayo Gazteria Zerbitzuko zinegotziak adierazi duenez, “material guztia aukeratu dute elkartasuna, kulturartekotasuna, inklusioa, sormena, euskararen erabilera eta irakurzaletasuna sustatzeko Getxoko nerabeen artean”.



## 55 gazte BECeko Gabonetako Parkera

Urtero bezala Gabonetan, Romoko GureGune eta Algortako GauEgun Gaztelekuek urteroko irteera egin dute Bilbao Exhibition Centreko Umeen Gabonetako Parkera. Udalerriko 11 eta 14 urte bitarteko 55 gaztek hainbat feria-atrakzioz gozatu ahal izan dute, baita kirol- eta jolas-ekintzez ere. Gaztelekuean egindako ekintzei buruzko informazio gehiago hurrengoetan: GureGune (Romokultur Etxea. Tel.: 635 70 65 26. [guregune-gaztelekua@getxo.eus](mailto:guregune-gaztelekua@getxo.eus). Instagram: @getxo\_guregune) eta GauEgun (Urgull 4, 3. solairua. Tel.: 944 660 356. [gauegungaztelekua@getxo.eus](mailto:gauegungaztelekua@getxo.eus). Instagram: @getxo\_gauegun).

## BEKAK SARIAK

\* **80 beka graduondoko ikasketetarako** La Caixa Fundazioak deitu ditu masterreko, doktoregoko edo doktorego aurreko ikerketako ikasketetarako (MBA izan ezik). Gehienez 24 hilabete, hainbat herrialdetan. Eskaera: otsailaren 1era arte. Informazio gehiago: [becas@fundacionlacaixa.org](mailto:becas@fundacionlacaixa.org) eta <https://labur.eus/VpFcv>

\* **“Better Energy by Design”** nazioarteko lehiaketa da ikasleek, graduatuek eta gazte profesionalak irtenbide berritzaileak sortzea sustatzeko. Izenematea hilaren 30era arte. Informazioa: <https://labur.eus/ZkrD2>

### Romoko Gaztelekuaren programazioa Urtarrila

**Hilak 7, larunbata:** TORNEOA: FUTBOLIN  
**Hilak 13, ostirala:** MASTER CHEF: OGIA TOMATE ETA BARATXURIAREKIN  
**Hilak 15, igandea:** JUEGO: LET'S SING  
**Hilak 18, asteazkena:** ESKULANA: PAPIROFLEXIA  
**Hilak 19, osteguna:** IRTEERA: BOLERA  
**Hilak 27, ostirala:** ESKULANA: KAMISETEN KUSTOMIZAZIOA  
**Hilak 28, larunbata:** IRTEERA: KITCHEN ACADEMY

### Algortako Gaztelekuaren programazioa Urtarrila

**Hilak 09, astelehena:** TAILERRA: MUSIKA  
**Hilak 11, asteazkena:** SUKALDARITZA: GAILETAK  
**Hilak 13, ostirala:** ESKULANA: GABONETAKO APAINGARRIAK  
**Hilak 15, igandea:** ESKULANA: APAINGARRIAK  
**Hilak 17, asteartea:** IRTEERA: BOLERA  
**Hilak 21, larunbata:** EKINTZA: GAZTELEKU APAINDU  
**Hilak 23, astelehena:** ESKULANA: MALABAREKO PILOTAK  
**Hilak 27, ostirala:** IRTEERA: UGP  
**Hilak 29, igandea:** EKINTZA: ASMAKIZUNAK

## Gazteria Zerbitzuak lau tailer berri antolatu ditu 2023ko lehen seihilekoan

Udaleko Gazteria Zerbitzuak urteko lehen seihilekorako antolatutako doako tailer eta ikastaroen deialdiaren berri eman da. 14 eta 30 urte bitarteko pertsonentzat, dibertsitate funtzionala duten gazteek ere parte hartu ahal izango dute eta otsailtik ekainera bitartean emango dira RKE-Romokultur Etxean eta, horietako bat, Berangoko skate parkean.

**Otsailaren 4an**, larunbata, 12:00etatik 13:30era, perkusio-tailerra izango da (euskaraz eta gaztelaniaz) 14 eta 20 urte bitarteko gazteentzat; eta bertan parte hartzaileek egingo duten ibilbidean, mendebaldeko Afrikako perkusio tradizionalako erritmoak ez ezagutzetik taldean interpretatzera igaroko dira.

**Apirilaren 20an**, osteguna, 18:00etatik 20:00etara, etxeko oinarrizko elektrizitatearen tailerra egingo da, ohiko arazoak konpontzeko. Euskaraz izango da (hitz egiten ez duenarentzat erraztuta) eta 18 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago.

**Maiatzaren 12an**, ostirala, 17:00etatik 20:00etara, elikagaiak manipulatzeko ikastaroen txanda izango da (gaztelaniaz). Honetan ere 18 eta 30 urte bitarteko pertsonen parte hartu ahal izango dute eta amaitzean, dagokion ziurtagiria emango da.



Azkenik, **ekainaren 3an**, larunbata, 10:30etik 12:30era, Berangoko skate parkean, skateboarding ikastaroa egingo da. Bertan, irristatzearen ikaskuntzan parte hartzen dutenei irakatsiko zaie, taularen gainean oreka mantentzen, baita skatean duten posizioa ere. 14 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta, euskaraz emango da.

Izena emateko (doan), telefono hauetan: 94 466 03 53/688 88 09 85; [gaztebulegoa@getxo.eus](mailto:gaztebulegoa@getxo.eus) helbidean, izena eta zein ikastaro edo tailerretara joan nahi duzun eta harremanetarako telefono bat (ahal dela, mugikorra) adieraziz; udaleko web-orrian: [www.getxo.eus/gazteria](http://www.getxo.eus/gazteria); edo aurrez aurre Gazte Informazio Bulegoan, Tangora Etxean, Algortako Etorbidea 98, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, astelehenetik ostiralera.

## Gazteek bultzatutako proiektuetarako “Wanted” programaren deialdi berria

“Wanted” programaren edizio berri bat jarri du abian Udaleko Gazteria Zerbitzuak, Getxoko bizitza soziala, ekonomikoa eta/edo kulturala aberastean lagunduko duten proiektuak aurkeztzen dituzten 18 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta.

Aurkeztu ahal izango dira: enpresa sortzeko proiektuak izan ala ez, proiektu profesionalak izan ala ez, antzezlanak sortu eta ekoizteko proiektuak, performanceak, film laburrak egitea, erakusketak, edozelako lehiaketak antolatzea, udalerrirako interesgarriak izan daitezkeen web orriak, blogak, etab. egitea, aisialdi jarduerak, hala nola ikastaroak eta tailerrak, gizarte arazoetan sentiberatzeko proiektuak, euskaren erabilera sustatzeko proiektuak, hitzaldiak bezalako dibulgaziozko proiektuak, eta abarrekokoak.

Gazteak banaka edo taldeka aurkez daitezke. Banaka aurkeztetokan parte-hartzailea Getxokoa izan behar da. Bina-ka aurkeztetokan, gutxienez parte-hartzaileetako bat Getxokoa izan behar da. Taldean hiru kide edo gehiago egotekotan gutxienez taldekideen bi heren Getxoko biztanleak izan behar dira.

“Wanted” programak aurreratutako proiektuak abian jartzeko beharrezkoak diren laguntzak emango ditu. Orotariko laguntzak eskainiko dira: 10.000€-ra arteko

**FINANTZAKETA ETA AHOULKARITZA ZURE IDEIAK BULTZATEKO**  
 Eskatu hitzordua eta zalantzak argituko dizkizugu: [gaztebulegoa@getxo.eus](mailto:gaztebulegoa@getxo.eus)

**FORMACIÓN Y FINANCIACIÓN PARA TUS PROYECTOS**  
 Pide cita y te aclararemos las dudas: [gaztebulegoa@getxo.eus](mailto:gaztebulegoa@getxo.eus)

biak berne **18 > 30** urte - años **ambos incluidos**

finantzaketa, aholkularitza profesional zerbitzuak, formakuntza zehatza proiektuak dituen beharrezkoetan, bide-laguntza zerbitzua eta, oro har, proiektuak gauzatzeko beharrezkoak diren baliabide eta zerbitzuak.

Parte hartu nahi dutenek [gaztebulegoa@getxo.eus](http://gaztebulegoa@getxo.eus)

duta, euskaraz emango da.

Izena emateko (doan), telefono hauetan: 94 466 03 53/688 88 09 85; [gaztebulegoa@getxo.eus](mailto:gaztebulegoa@getxo.eus) helbidean, izena eta zein ikastaro edo tailerretara joan nahi duzun eta harremanetarako telefono bat (ahal dela, mugikorra) adieraziz; udaleko web-orrian: [www.getxo.eus/gazteria](http://www.getxo.eus/gazteria); edo aurrez aurre Gazte Informazio Bulegoan, Tangora Etxean, Algortako Etorbidea 98, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, astelehenetik ostiralera.

[tebulegoa@getxo.eus](mailto:gaztebulegoa@getxo.eus) Gazte Informazio Zerbitzuarekin jar daitezke harremanetan, 94 466 00 18 telefonoan, eta hitzordua eskatu beren proiektua azaltzeko.

Informazioa sare sozialetan eguneratzen da #WantedGetxo etiketarekin.